



BARREN
TOKIKOM



**Etxean
berriz ere**

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Lehen aldian...

PENTSATZEN NUENA BAINO EROSOAGO SENTITU NINTZEN.

Egin ezazu lentillen lehen froga bat doan. Miopia, hipermetropia, astigmatismo edo ikusmen nekatuarentzat.



Alcon
a Novartis company

Uzuri **optika audio**
RPS 183/12 ELGOIBAR - DEBA
www.uzurioptika.com

Elgoibarran kokatuta dagoen Uzuri Optika Audio enpresaren jarduerak ez dira Alcon enpresaren jarduerak. Alcon enpresaren jarduerak ez dira Uzuri Optika Audio enpresaren jarduerak. Uzuri Optika Audio enpresaren jarduerak ez dira Alcon enpresaren jarduerak. Alcon enpresaren jarduerak ez dira Uzuri Optika Audio enpresaren jarduerak.

ONWA TELEBISTA

ONWA 49 FH 49"
LED - FULL HD (1920 X 1080)

349 €



BOSCH WAE2447PES GARBIGAILUA

A+++
7 KG
1200 R.P.M.

399 €

Eramazu!

MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

atzak
taberna
San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183
Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kerpo eta berrak estaldura
Zirkul ezartzea
Lakadura eguz, aluminio, PVC.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

ORBE
PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIEGAN ADITUAK
Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860
www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com
TOLDOAK ETA PERTSIANAK

ELENA

ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



ENEKO ITURBE



“Nahiago dut kalitatezko arropa gutxi eduki, armairua txerrikeriaz beteta izatea baino”

Epa, Ana! Ez dira egun asko igaro *fast fashion* deritzon industriaren inguruan egin zuten dokumentala ikusi nuela. Berau *low cost* deituriko moda-enpresen produkzioaren inguruko dokumentala da, eta bertan gaur egun pilpilean dauden zenbait gai aztertzen dira: esklabu gisa lan egiten duten langileak, ordainsari onartezinak, ekonomikoki enpresarentzat negozioa ahalik eta errentagarriena izateko hartzen diren neurri penagarriak, eta abar luze bat, zoritarrez! Ni neu industria honen barruan kokatzen den horietako bat naiz gaur egun, eta nire eguneroko errealitatea telebistan irudikatuta ikusi nuen momentu horretan. Zerbaite aitortu behar dut, ordea: han ikusitako ezerk ez ninduen gehiegi harritu. Baina, Ana, zein sentsazio izan zenuen zuk dokumentala ikusi ostean? Harritu al zintuen ala, aitzitik, eza gutzen zenuen errealitate bat besterik ez zenuen ikusi pantailaren atzean? Esan liteke aztertzen ari garen fenomeno hau batez ere emakumezkoen modan gertatzen dela; izan ere, buruan sartu digute erosi eta denbora apur bat pasatakoan, arropa horrek ez

duela kasik balio. Azken finean, erositako arroparekin aspertu, alde batera utzi eta berria erostean oinarritzen den kontsumismoan datza. Baina zergatik gertatzen da hau? Besterik gabe, hau gertatzearen arrazoi nagusia tendentziak dira, sei hilebetero berritzen direnak. Esan bezala, beraz, hilaebete gutxi batzuk pasa ondoren itsusi eta kadukatuta ikusten ditugu *look* hauek. Aizu, Ana, blogger gisa, somatzen al duzu tendentzien pase azkar hau proposamenak egiterakoan? Edo estilo berean finko mantentzearen aldekoa zara zu? Argi dago, bai, bakoitzak bere aldera jotzen duela, eta, zergatik ez, nik ere egingo dut nire kanpaina! Izugarri gustatzen zaizkit kalitatezko arropak, eta baita prozesu artistiko landua duten horiek ere. Detaileak zaintzen dituzten markak ditut gogoko eta nahiago dut, noski, kalitatezko arropa gutxi eduki, armairua txerrikeriaz beteta izatea baino! Beraz, hor doa gakoa: kalitatea ala kantitatea, zein duzu nahiago? Batzutan, biak konbinatzea zaila izaten da, lagun.



ANA ALBERDI



“Esplotazio eta bizi baldintza horien konplize bagara, hein batean, baina begiak ixten ditugu”

Kaixo, Eneko. Nik ere aukera izan nuen bai *Fashion victims* dokumentala ikusteko, eta, zu ez bezala, egon ziren harritu ninduten zenbait gauza. Egund modarekiko dugun obsesioa ukaezina da; duela zenbait urte marka nagusiek denboraldi bakoitzeko kolekzio bat ateratzen bazuten, gaur astetik aстера kolekzio horiek berritzen diren eguna da, guri behar bat dugula sentiaraziz, tamalez. Nobedade grina eta exigentzia maila altu hori ordaintzen dutenak, ordea, eskaparete eta *look* zoragarri horien atzean egunero lan egiten duten pertsonak dira, deslokalizatuta dauden enpresetan lan egiten duten biktimak, alegia. Baina guri, bost axola. Egoismoaren munduan bizi gara, non gure onura ekarriko duen edozer onartzeko prest gauden; baita giza eskubideak zapalduta ikustea ere. Diskurtso ausarta darabagu ahoan, munduaren salbatzaile garelako sentiarazten gaituen diskurtso itxuratia. Baina errealitatea da denok jotzen dugula *fast fashion* deritzon sektorerara. Gogorrena hango langileen soldatak ezagutzea izan zen, zein egoera tamalgarritan bizi diren ikustea;

bost jertse merkeren prezioa hauen hilaebete osoko soldata bat baino altuagoa izatea. Kontua ez da enpresek bertan esku lan merkea topatzen dutela, baizik eta miseriarra kondanata dauden herrialde horiez aprobetxatzen direla, beraien poltsikoak betetzeko. Kontziente al gara, gu, erosleok, esplotazio eta bizi baldintza horiek egun existitzearen konplize garelako? Hein batean bagara, baina begiak ixten ditugu. Ez dut esango nik ez dudala horrelako dendetan erosten, gezur galanta izango litzatekeelako. Baina egia da gero eta arreta gehiago jartzen dudala erosten ditudan jantzien jatorrian. Ez gara konturatzen hemen bertan egiten diren marka izugarriak ditugula gure inguruan, kostu-onura balantza txikiagotan aritzen direnak, onurak bere langileak esplotatuz lortzen ez dituztenak. Hausnarketa luze baterako ematen dit gai honek, Eneko, baina oraingoan, irakurleei, Evole jaunaren dokumentala ikusteko eskatuko diet. Norberak atera ditzala bere konklusioak.

JESUS JIMENEZ

Ekonomialaria



Txanpon digitalak

Bitcoin 2009. urtean Japonian sortutako txanpona da, mundu osoko banku zentralen kontroletik ihesi, era globalean hedatzeko intenzioarekin eta internet bidezko salerosketak bideratzeko helburuarekin. Sistema informatiko konplexuen bidez erabiltzaileen segurtasuna bermatzen da, eta segurtasun hau da Bitcoin txanpon digitalari balioa ematen diona. Horrez gain, erabiltzaileek sistema informatikoaren alde lan egin dezakete, segurtasunaren mesedetan, txanpon berrien truke.

“Argi dago abian dela txanpon eta billeterik gabeko diru zorroen etorkizuna”

Moneta digitalek, bere izaera dela eta, arazo ugari izan dituzte hedatzeko. Alde batetik politikoak, mundu osoko gobernuek eta banku zentralek beraien kontrolpean ez dauden ordainketa era berriak oztopatzen dituzten legeak ateratzen baitituzte. Bestalde, moneta sistema honetan murgildurik dauden enpresetan iruzur eta diru lapurretek sinesgarritasuna kendu diote. Eta azkenik, Bitcoinnek merkatuetan kotizazioa duenez, erabiltzaileek txanpona baino gehiago espekulaziorako finantza-tresna gisa ikusi dute, ondasunak erosteko erabili beharrean, merke erosi eta garesti salduz.

Oztopo gehiegi dira interes handiko gobernuek eta merkatuek jartzen dituztenak, baina, moneta digitalak gailendu ala ez, argi dago abian dela txanpon eta billeterik gabeko diru zorroen etorkizuna.

Duela aste batzuk iritzi atal honetan tokian tokiko txanponei buruz aritu nintzen. Orain, berriaz, aurkako fenomenoarekin nator, txanpon digitalak, munduko edozein puntutan inolako trabarik gabe edozein produktu eta zerbitzu erosteko sortuak, erabiltzaileek beraien kudeatutakoak, eta jendearen partehartzearekin sortu eta garatu direnak. Horien adierazle nagusi eta moneta ezagunena Bitcoin dugu.



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriando, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Urte guzti hauetan plataforma honen helburuarekin bat egin duzuen eta laguntza zein erraztasunak eman dizkiguzuen herritarrei gure eskerrik zintzoena adierazi nahi dizuegu. Ongarri, Morkaiko, herriko musikari eta hainbat boluntario ditugu gogoan. Baita, noski, Udalari eta haren zerbitzuei ere, eman dako laguntza eta babesagatik.

Eskerrik asko.

Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimena

► BIDEA ERORTZEKO ARRISKUA, ANDIKANORA BIDEAN

Igandean, ufalaren eraginez, Andikano baserrirako bidearen azpikaldea urak eraman zabala ikusi genuen. Zuloa 7 metroko luzeera eta errepedearen zabalera osokoa gelditu zan.

Hori ikusita, bidea itxi egin zan, horretarako zinta plastikoa eta heziak jarri ziren, eta hauei itsatsita, itxieraren zergatia adierazten duen idatzia.

Itxitura nabarmena izan arren, jendea, ezer ez balitz bezala, zinta jaso eta bertatik pasatzen ibili zan.

Bidea erortzeko arriskuak hor jarraitzen du eta konpontzen den arte, ezer larririk gerta baino lehen, agindua errespetatzea besterik ez dugu nahi.

Eskerrik asko.

Javier Oñederra, Udaltzainburua

► BABES OFIZIALEKO ETXEAK

Elgoibarren, babes ofizialeko 16 etxebizitza zozketatu berri dira. Esleipen prozeduran parte hartu ahal izateko, 2014an 9.000-39.000 euro arteko diru-sarrerara ponderatuak justifikatu behar ziren. Ponderazioaren adibide moduan, bi diru-sarrerara iturri eta bi ume dituen familia estandar bat, 51.000 euroko diru-sarrerekin apunta daiteke. Behin etxea erosita, nahi edo ahal beste igo daiteke maila ekonomikoa.

EUSTATEko estadistikak aztertuz, Gipuzkoarren %88k norbanako moduan eta %60k familia moduan, 39.000€ baino gutxiago irabazten dute. Guzti horiek, laguntza honen beharra dute?

Erantzuna bai baldin bada, azken urteotan etxebizitza alorrean aplikatutako politikak ez direla egokiak izan pentsa daiteke. Erantzuna ez baldin bada, herritarrez haragoko interesak asetzeko hartutako neurriak direla pentsa daiteke. Zeinek irabazten du etxeak salmentakoak izanda eta eros dezakeen jendea bonboan sartuta?

Helburua benetako beharra dutenei laguntzea balitz, beste politika batzuk aplikatuko lirake. Salmenta kendu eta alokairua sustatu. Zozketa ponderatuak beharren arabera egin. Soldaten arabera hilerako errentak ezarri. 3-4 urtero, ingrosen justifikazioa berritzea eskatu bizilagunei... Horrela, bere egoera hobe-

tzeko aukera eta zortea izan duenak, etxea utzi eta leku egingo lioke behar handiago duenari.

Politikoek ez dute batere interesik politikak aldatzeko, baina herritarrek ere ez. Bonboan sartuta gaudenez eta loteria hau tokatzeko probabilitatea dugunez, begiak itxi eta sistemaren parte izatea aukeratu dugu. XXI. mendeko sozialismoa...

J.A.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutiz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitzik argitaratuko.



Maria Delfina Fernandez Cid

2016ko otsailaren 22an hil zen, 57 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Kulturartekotasuna, integrazioa eta gizarteratzea bultzatzeko emakume migratzaileen elkarteak sortu dute



Loreak elkarteak (Rahma Zaroual Larabechik presidentea erdian) Udaleko eta Emakumeen Kontseiluko kideekin.

Astelehenean aurkeztu zuten udal-letxean emakume migratzaileen Elgoibarko elkarteak: Loreak. Munduko toki eta etnia guztietako emakumeak elkartzeko asmoa du elkarteak eta oraingoz bost marokoar eta senegaldar bat daude. Zabalitzen-Sarturen eta Udalaren laguntza jasoko dute. Aurkezpenean Emakumeen Kontseiluko hainbat kide ere izan ziren eta elkarteari laguntzeko prest daude horiek ere.

Elkarteak kideak azaldu zuten kulturartekotasunerako emakumeen elkarteak dela. Emakume migratzaileen integrazioa bultzatu nahi duena berdintasunetik eta jakintzatik abiatuta. "Emakumeok bizitza eta justiziarako gaitasun pertsonala izateko, giza eskubideak defendatzeko, alfabetatzeko edo ahalduntzeko hezkuntza prozesuak bultzatu nahi ditugu". Izan ere, autonomia pertsonala lortzeko bideak ematen dizkie taldeak "espazio bat izateko gure egoera partekatuzeko, informazioa emateko eta emakumeek autoestimua igotzeko".

Elkartearen helburua da "plural, solidario eta partehartzailea izatea eta emakumeentzako erreferentzia. Baita ere ahalduntze prozesuan kulturartekotasuna eta elkarbizitza herri osora zabaltzea. Era berean, emakumeen ideiak beste erakunde batzuekin partekatuko dituen".

Partehartzea bultzatu nahi dute emakume migratzaile enata elgoibartarren ar-

tean eta "familia guneak sortu guztientzat gertutasuna eta elkarbizitza bultzatzeko, batik bat emakumeon artean. Ahalduntzea bultzatu nahi dugu norbere ezagutzaren eta ezagutza akademikoaren bidez esperientziak elkartrukatzuz".

Hori guztia posible izan dadin elkartasuna, kooperazioa, pertsonekiko errespetua, enpatia, giza-justizia, kontzientzia kritikoa eta kulturartekotasuna dira aldarririkatu dituzten baloreak.

Elkarteak orain aurkeztu badute ere, jadanik hasiak dira hainbat jarduerarekin. Gaztelania eta arabiera ikasten -euskara ikasteko asmoa ere azaldu dute- eta jostintza, eskulan, sukaldaritza... tailerrek egiten besteak beste. "Hori beste emakume eta erakunde batzuekin elkarbizitza eta konfiantza lortzeko eta baita laguntza eta aholkuak jasotzeko baliagarri izan daiteke".

Herria laguntzaile

Ane Beitia alkateak aurkezpenean esan zuen elkarteak kideentzat ez ezik herritar guztientzat dela baliagarria Loreak. Berdintasun zinegotzi Bittori Zabalak esan zuen emakumeentzat plataforma bat izateaz gain, ordezkatzeko dituzten familiak ere Elgoibarren integratzea, elgoibartarrak eta elgoibartartuak izatea dela helburua. "Elgoibarren biztanleen %9 migratzailea da eta hori kopuru esanguratsua da. Denok gara Elgoibarko parte

eta elkarrekin lan egin behar dugu". Gizarte Ongizate Saila: Blanca Larrañagak ere zoriondu egin zituen eta beraiengandik asko ikasiko zukeela esan zien.

Erreferentzia gune

Amagoia Ruiz de Gauna Udaleko Berdintasun eta Gizarte zerbitzuko teknikariak adierazi zuen emakume migratzaileen iritzia kontuan hartu gabe egiten zizutela gauza asko. Baina "ikusitako gaitasun handia zutelako erabakiak hartzeko eta egin dezaketena erabakitzeko. Beren artean badago harremana, baina bultzada behar zuten elkarteak. Orain nolabaiteko lotura izan daitezke iristen diren emakumeek erreferentzia gune bat izan dezaten".

Ostiralero elkartzen dira Loreak elkarteak Sarturen lokalean (Arregitorre, 6) 10:00etan eta dei egin nahi diete Elgoibarrera etorritako emakume migratzaileei gerturatu daitezkeen eta taldean parte har dezaten. "Mugitu egin nahi dugu eta guretzat ez ezik herriko beste emakumeentzat zerbait egitea, bestela itxita gaude, ikustezinak izango bagina bezala eta herrian integratu nahi dugu".

Barixakuan, esaterako, Kultur Etxean egingo den *Emakumeak izatea Indian* argazki erakusketaren inauguraziorako tea eta beren herrialdeetako pastelak prestatuko dituzte eta elgoibartarrak gonbidatu nahi dituzte.

Ainara Ladron atxilotzeko agindua eman zuen epaileak eguaztenean



Eguazteneko protesta ekitaldian parte hartu zuen Ainara Ladronek.

Jarrai-Haika-Segi auzia salatzeke eta euskal gazteriaren militatzeko eskubidea aldarrikatzeko 2007an A8 autobidea moztu zuten bost gaztek, tartean Ainara Ladron elgoibartarrak. Eguaztenean zuten epaiketa Donostian. Ekintza hartatik ia bederati urte igaro dira eta hasieratik desobediendiaren aldeko hautua egin dute auzipetuek. Asier Alberdi eta Saioa Zerain agertu ziren epaitegira, baina Aritz Azkona, Naroa Ariznabarreta eta Ainara Ladron ez.

Fiskaltzak bi urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu zuen eta epaileak azken hiru horiek atxilotu eta espetxeratzeko agindua eman zuen. Libre Elgoibar taldeak epaiketaren aurkako kontzentrazioa egin zuen eguazten arratsaldean Kalegoen plazan. Ainara Ladron, epaiketara joan ez eta atxilotzeko agindua zuen arren elkarretaratzean izan zen. Aldizkaria bukatzeko orduan Naroa Ariznabarreta eibartarra atxilotua zuten.

Elkarretaratzeak izango dira martxoaren 8an

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, martxoaren 8an bi ekitaldi nagusi izango dira: Elgoibarren Emakumeen Kontseiluak deitutako martxa morea egingo dute, 19:00etan, Kalegoen plazatik abiatuta; Mendaron, ordu berean, giza katea eta Berdintasun Egunekeo manifestuaren irakurketa plazan.

Europako Udalen adierazpen instituzionalarekin bat egin du Elgoibarko Udalak. Adierazpenak dio emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarriko balioa direla demokraziarentzat eta bete beharreko hainbat helburu zehaztu ditu. Besteak beste, berdintasuna agenda politikoaren erdigunean egotea eta politika eta lege garrantzitsuetan txertatzea; emakumeek pairatzen duten indarkeria salatzea, genero-indarkeria prebenitzea eta biktimak babesteko politika eta lege bateratuak sortzea.

Adierazpen horri Elgoibarko Udalbatzak kontuan hartu beharreko beste hainbat zeregin gehitu dizkio: Berdintasun Saila eta aurrekontua egonkortu eta sendotzea; herriko kale izendegia errebisatu eta emakume izenak jartzea.

Mendaroko Udalak EH Bilduren adierazpena onartu zuen aho batez konpromisoa hartuz sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko; diru-laguntzetan genero klausulak ezartzeko; biolentzia matxistaren kontrako protokoloa landu eta abian jartzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean; eta herriko puntu beltzen mapa osatzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.

Bestalde, bi Udalek adierazi dute herriko jai eta ospakizunetan partehartze partekidea landu eta sustatu behar dela herriko taldeekin elkarlanean. Era berean dei egin dute emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzera.

Errefuxiatuei buruzko zikloa antolatu du Elgoibarko Gazte Asanbladak

Siriako gatazkaren eta errefuxiatuen irudiak zabaldu arren, gertatzen ari dena ez daki askok. Beraz, gatazkaren erroetara gerturatzeko eta Ekialde Hurbila hobeto ezagutarazteko zikloa antolatu du Elgoibarko Gazte Asanbladak.

Martxoaren 9an, eguaztenean, Siriako gatazka eta errefuxiatuen arazoa izango ditu hizpide Mikel Aramendi nazioarteko politikan aditua den kazetariak. Hitzaldia 19:00etan izango da Kultur Etxean. Hurrengo egunean Lesbos irlan boluntario egon den Elgoibarko Iñaki Iraola bere esperientziak arituko da 19:00etan Sutegixa gaztetxean. Zapatuan, kontzertua izango da Joseba B. Lenoir eta Dj Mg_Soundekin 23:00etan, gaztetxean hori ere eta sarrerak 3 euro balio du. Zikloa amaitzeko martxoaren 13an *Ein Augenblick Freiheit* filma emango dute 19:00etan gaztetxean. Irango errefuxiatu batzuen bizimodua da film horren ardatza.

14 milioi euroko Udal aurrekontua

Elgoibarko Udaleko osoko bilkurak 2016rako aurrekontuak onartu ditu, EAJren botoekin. EH Bilduk eta PSEk kontrako bozka eman zuten. 14 milioi euroko aurrekontua izango du Elgoibarko Udalak urte honetarako.

- OIER NARBAIZA -

Elgoibarko Udalak 13.999.822,21 euroko aurrekontua onartu du 2016rako. Iaz urte hasieran onartutako aurrekontua 13.682.562,85 eurokoa izan zen, beraz hasierako aurrekontuak alderatuta %2,32ko igoera izan du aurrekontuak. Aurreko egunean onartu zituen aurrekontuak Elgoibarko Udaleko Osoko Bilkurak, EAJren botoekin. EH Bilduko eta PSE-EEko zinegotziek Gobernu taldeak aurkeztutako proiektuaren aurka bozkatu zuten.

Elgoibarko Udalak 1,6 milioi euro bideratuko ditu aurten inbertsioetarako. Olasoko pasarelarako izango da diru gehien (300.000 euro). Josteko makinaren ondoko zubia erabat berritu, makina konpondu eta sarbideak konponduko dituzte –igogailua ere jarritz–.



Proiektuen idazketarako (121.000 Aita Agirreko eraikina eta 50.000 Sigmako etxebizitzaren berrurbanizazioa) bideratu dituzte. Aita Agirreko hainbat elkarte Pedro Muguruza-rala aldatuko dituztenez, hura egokituko dute eta merkatu plaza-ko komunitateko, Kultur Etxeko eta udaletxeko obrekina batera 120.000 euro gastatuko dituzte. Lagun Taldea txirridulari elkarte Mintxetara joango da eta lokalarentzat 65.000 euro izango dira. Irisgarritasuneko (60.000 euro) lan aipagarrienak Urazandi auzoan egingo dituzte parketik portaletara aldapak eginez eta zebrabideak eta espaloiak behar bezala. Parke eta lorategietan (56.100 euro) Urazandi eta Leku Eder egokitzeaz gain, San Roke kalean egingo dute berria. Hiri altzarrietan (50.000 euro) barandetakoko izango dira 30.000; eta argiztatze eta seinaleztapenetik (45.000 euro) kopuru bat San Roken eta San Frantziskon led lanparak jartzeko izango da.

KOPARAKETA

2016 Hasierako aurrekontua	2015 Hasierako aurrekontua	2015 Behin-betiko aurrekontua
13.999.822,21	13.682.562,85	15.320.512,26

2015KO UDAL AURREKONTUAREN LABURPENA

- **Elgoibarko Udal aurrekontua: 13.999.822,21 euro**
- **Aurrekontu bateratua (Udal aurrekontuari San Lazaro egoitza eta Kirol Patronatua gehituta): 15.329.902 euro**
 - San Lazaro: 159.280 euro [Egoitzak ibilbide berria Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardurapean egingo duenez, hurrengo hilabeteetan Aldundiak eta Udalak kontuak banatuko dituzte].
 - Kirol Patronatua: 1.170.800 euro

SARRERAK

Zuzeneko zergak	3.408.465,91
Zeharkako zergak	130.000,00
Tasak eta bestelako sarrerak	2.288.340,45
Transferentzia arruntak	7.472.516,00
Ondarezko zergak	13.000
Kapital transferentziak	680.499,85
Aktibo finantzarioak	7.000

Sarrerak guztira

13.999.822,21

GASTUAK

Personal gastua	3.978.238,17
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	5.993.174,97
Gastu finantzarioak	1.845,22
Transferentzia arruntak	2.194.350,92
Inbertsio errealak	1.623.212,93
Kapital transferentziak	178.000,00
Aktibo finantzarioak	8.000,000
Pasibo finantzarioak	23.000,00

Gastuak guztira


13.999.822,21

2016ko INBERTSIO NAGUSIAK

Olasoko pasarela	300.000	Mintxetako lokalak	65.000
Trenbide kalea	170.000	Irisgarritasuna	60.000
Proiektuen idazketa	170.000	Parkeak eta lorategiak	56.100
Mugiezinetan konponketa	120.000	Gaztetxea egokitzeko lanak	50.000
Sigma eta Altzolako inbertsioak	100.000	Hiri altzariak erostea	50.000
Kirol harmailak Olaizaga kiroldegian	100.000	E-mugi autoen erosketa	50.000
Industriaguneak	80.000	Argizatzea eta seinaleak	45.000
Kaleen konponketa eta hirigintza	75.000	Haurreskolako terraza konpontzea	40.000

2016ko AURREKONTUAK, SAILKA

	2015	2016
BARNE SAILA (Gobernu organoak, administrazio orokorra, segurtasun Saila, Ekonomia eta Formakuntza)	3.813.429,72	4.239.294,98
KULTURA (Hezkuntza, Kultura, Liburutegia, Euskara)	1.972.974,99	1.861.978,76
GIZARTE SAILA (Gizarte ekintzak, Jubilatua, Kontsumo Bulegoa)	1.097.871,86	1.097.915,93
HIRIGINTZA SAILA (Hirigintza, Hondakinen kudeaketa eta kale garbiketa, bide publikoak, nekazal garapena eta hilerria)	5.948.446,35	5.868.565,06
OGASUN SAILA (Zor publikoa, ekonomia kudeaketa)	534.905,67	563.238,72
GAZTERIA	302.934,26	317.328,76
BERDINTASUN SAILA	42.000,00	51.500,00





Udalaren egoera oso saneatuta dago

Udal honen egoera ekonomiko-finantzarioa oso saneatuta dago. Aurrekontu honek 1.122.000 euroko aurrekia sortu du, sarrera eta gastu arrunten arteko diferentzia. Aurrezki honek inbertsioetara edo aurrezkira bideratzeko ahalmen zabala emango digu.

Aurrekontua orekatzeko ez da mailegurik aurreikusi behar izan. Datu hau esanguratsua da. Eta baita ere, eskertzekoa da herentzian ez dugula zorrik jaso.

“Aurrekontua orekatzeko ez da mailegurik aurreikusi behar izan”

Gastu sozialaren hazkundea %6koa da. Kalitatezko gizarte zerbitzuak bermatuta daude. Eta behar izanez gero, aurrekontuetan dotazio osagarriak izango dituzte. Nahiz eta aurrekontuan ez azaldu, bi proiektu nagusi eta estrategiko aipatzea nahi ditugu:

- **Aita Agirre:** Aita Agirreko eraikinarri emango zaion erabileraren inguruan martxan dago partaidetza eta gogoeta prozesua. Urte honetan zehar proiektu erraldoi horri forma emango zaio, eta printzipioz, datorren urteko aurrekontuan isla izango du.

- **Pilar:** Pilarreko proiektua ez da azaltzen aurrekontu honetan, baina bai gure helburuetan. Aurreko urteetan Udal honek bere esku zeuden pauso guztiak eman ditu Pilarreko orubean Aldundiak eskualdeko erresidentzia bat eraiki dadin. Aurreko legealdian Aldundiaren jarrera proiektu honen aldekoa izan ez bada ere, lanean jarraituko dugu oraingo legealdi honetan Pilarren erresidentzia gauzatu dadin.

Herritarrei bizkarra emanez onartutako aurrekontuak

EH Bilduk pisuzko arrazoiak izan ditu legealdi honetako lehen aurrekontuak ez onartzeko:

“Ez dakigu zeintzuk diren Udalak legealdi honetarako dituen lehentasunak”

1. Egun, elgoibartarrok ez dakigu zeintzuk diren Udalak legealdi honetarako dituen lehentasunak. Eta ez dakigu Udalean ere ez dakitelako. Alkatetzak ez du urratsik eman legealdirako plana egiteko. Jakin gabe nondik abiatzen garen eta erabaki gabe nora goazen zaila da herriaren beharrei erantzun dion aurrekontua izatea.

2. 2014an onartu genuen herritarren partaidetzari buruzko araudiak dio Udalaren konpromisoa dela herritarrek tokiko politikan integratzea. Itxurakeria hutsa. Aurrekontuak, berriro ere, herritarrei bizkarra emanez egin dira, garrantasunik gabe eta ekarpenak egiteko bideak eskaini gabe.

3. Lehentasunak ez dira pertsonengan jarri, aurrekontuaren igoera batez ere Udal kudeaketara zuzendu baita, bigarren maila batean utziz gizarte politika, kultura eta euskararen arloak.

4. Bukatzeko, EHBildu koalizioak eginiko ekarpenak, nahiz eta aurretik onartuak egon, atzera bota dituzte: gazteek etxebizitzak alokatzeko laguntzak, Elgoibarren gertatutako giza eskubideen urraketa guztien bilduma, hondakinen birziklapena hobetzeko neurriak, herritarren partaidetza sustatzea...

Umeen eta helduen alorreko laguntzetan gabeziak

Bi arlo jorratu ditugu:

1. Soziala:

Pilarreko Zaharren Egoitza: Inbertsio handia da, baina Diputazioaren diru-laguntzarekin posible izan daiteke. 2015. erroldako datuen arabera, Elgoibarren, (auzoak kanpoan lagata) 8.500 biztanleen %22,6 dira 65 urtetik gorakoak (auzoetan, %30). Lehentasuna eman behar zaio Gerontologikoari, beste inbertsio batzuen aurretik. Bere garaian bai PSE-EEK eta EAJk, halako pausoak eman eta gero, Eguneko Zentroko familiei erantzun bat eman genien. Baina bai Diputazioan eta bai Elgoibarko Udalean EAJk, momentu honetan gobernatzen dagoenez, ez dakigu pausorik eman duen ala ez.

“Aktibitateen diru laguntzak banatzean desoreka dago ikastetxeen artean”

2. Hezkuntza arloa

Urazandiko Herri Eskola Udalaren babespean dago. Legeak behartzen dio zentro honen mantenu, atezain, garbiketa, eta sortzen diren aurreikusi gabekoei aurre egiten. Aktibitateen diru-laguntzak banatzean, desoreka galanta dago. Ikastolak, pribatu-konzertatua izanik, jasotzen ditu orokorrean Hezkuntza Saitetik 41.000 euro 989 ikaslerentzat; Urazandi eskola publikoak, berriz, 7.700 euro, 545 ikasle izanda. Ikastolako ikasle bakoitzari, batez beste, 41 euro egokitzen zaizkio, eta Herri Eskolakoei, 13 euro. Lehen Hezkuntzako ikasleen artean eginez gero banaketa, areagotu egiten da distantzia hori. Ikastetxe biei kriterio bera aplikatzea eskatzen dugu eta .

▶ Deba eta Kilimon, gainezka

Altzolako estazioan arrisku maila gairitu zuen Deba ibaiak aurreko zapatuan, otsailaren 27an. Metro koadroko 61,3 litro neurtu zituen. Deba eta Kilimon ibaiak, beraz, erabat hazi ziren eta izua eragin zuten. Mendaroko Garagartzan eta Altzolako behe solairuetako lokaletan izan ziren kalterik handienak. Elgoibarko bidegorri hasieran zulo handia eragin du urak. Alzola ur enpresak Urkulu eta Aixolako urtegien kudeaketa egokia eskatu du horrelakorik berriz ez gertatzeko. Argazkiak eta bideoak: www.barren.eu



Domekan garbitze lanak izan ziren Mendaron eta Altzolan.



Garagartzan urak hartutako maila erakusten du emakume honek.



Deba ibaia oso hazita etorri zen zapatu arratsaldean. Udaltzainek uholde arriskuaren abisua zabaldu zuten Elgoibarren.



Bidegorri hasieran urak egindako zuloa.



BARREN salbu gelditu bazen ere, Kultur Etxeko sotoan ura sartu zen.



Jende asko hurbildu zen Kalegoen Plazara martitzenean.

Ikusmina Otegiren etorreran



Arnaldo Otegiren irudiak indar handiagoa hartu du sei urte eta erdiko kartzela aldi honetan. Elgoibarrera hurbildutako jendetzak eta arreta mediatikoak haren itzala zenbateraino hazi den erakutsi zuten martitzenean. Jendearen artean ikusmina izan zen nagusi. Otegi "desentrenatuta" egon arren, lehengo oratoria gaitasuna erakutsi zuen. Logroñora eta Kalegoen plazara hurbildu zirenak edo haren hitzaldiak streaming bidez jarraitu zituztenak hunkitzea lortu zuen. Irribarrea aldarrikatu zuen kartzelatik irten berritan eta ekindako bidearen aldeko apustu irmoa egin zuen.

- OIER NARBAIZA -

ragarri bezala, goizean irten zen Arnaldo Otegi Logroñoko kartzelatik, sei urte eta erdi egin ondoren. Familiako kideak ez eze, Elgoibarko lagunak eta zenbait aurpegi ezagunek ere bere ondoan egon nahi izan zuten lehen momentutik. Euskal Herriko eta nazioarteko hedabide ugari gerturatu ziren. Hamaika pertsona hurbildu zitzaizkion agurtzera eta besarkatzera.

Kartzela aurrean emandako lehen hitzaldian, hartutako bidea irmo defendatu zuen, eta "azken muturreraino" eramateko borondatea erakutsi. Preso politikoa izaera aldarrikatu zuen. "Euskaldun moduan sartu gintuzten kartzelara eta euskaldun moduan ateratzen gara. Euskaldunak gara eta harro gaude. Independentista moduan sartu gintuzten kartzelara eta are independentistagoak gara ateratzen garenean. Sozialista moduan sartu gintuzten kartzelara eta are sozialistagoak ateratzen gara kartzelatik. Eta orain tokatzen dena da irekitako bidean sakontzea eta irekitako bide hori azken muturreraino eramatea. Etxera preso guztiak eta independentzia. Lehendakaririk onena Euskal Herrian, herria!".

Arratsalderako ez zegoen lekurik Kalegoen Plazan. Hainbat herritar gerturatu ziren harrera egitera, asko elgoibartarrak eta beste asko inguruetakoak. Aurpegi ezagun batzuk ere baziren tartean. Ekitaldia oso mediatikoa izan zen azkenean. Seguruenik, Elgoibarren inoiz ez da horrelako kazetari, kamera eta argazkilari kopururik ikusi.

Plazan bildutakoen artean ikusmina zen nagusi. 18:30ak aldera ikurrinen artean sartu zen Otegi Txankakuako zubitik. Jendeak txalo artean hartu zuen, hunkituta. Presoen eta independentziaren aldeko oihuak izan ziren nagusi.

Arnaldo askatu, politika askatu plataformako kideek ere parte hartu zuten haien jarduna amaitutzat jo dutela adierazteko.

Plazako hitzaldian, eguneko bigarrean, esker oneko hitzak izan zituen Otegi, elkartasuna eta babesa erakutsi dioten guztienganako. Ezker abertzalearen aldarrikapenak ahaztu gabe bizikidetzan sakondu behar dela adierazi zuen. "Bakea eta elkarbizitza beharrezkoak dira, baina baita askatasuna eta berdintasuna ere". Poza agertu zuen pertsona askok bizkartzainik ez dutelako behar oraingo egoera berrian. "Zintzoki esaten dizuet; ni asko pozten naiz lehen bizkartzainekin ibili behar izaten zutenek orain ez dutelako horren beharrik", eta presoen eta haien ingurukoekin sufrimendua konpontzeko beharra nabarmendu zuen. "Astebururo bisitara eramateko poltsa prestatzen duten guraso eta lagun horiez gogoratzen naiz ni", adierazi zuen. Preso guztiak etxeratze beharrik lehentasuna duela azpimarratu zuen.

Hunkigarria izan zen Otegiren etorrera. Ikusminez gerturatu zirenak oro har pozik utzi zituen. Bai ezker abertzaleko kideek bai desberdin pentsatzen dutenek ere egiaztatu zuten ideiak modu bizian transmititzeko gaitasunez itzuli dela etxera.



Senitartekoak besarkatzen (argazkia: Aitziber Arregi).



Lagunekin eta senideekin Logroñotik bueltan (argazkia: Soarte).



Arnaldo Otegi plazara sartu zeneko unea.



Arnaldo askatu plataformak bere jarduna amaitutzat jo du.



Fermin Muguruzaren saioa, ekitaldiaren amaieran.



Laura Daquintak 'Emakume izatea Indian' erakusketa jarriko du Kultur Etxean.

Unai Villenak martxoaren 17an aurkeztuko du 'Hauts haietatik' nobela

Hauts haietatik bere lehen eleberria kaleratu du Unai Villena idazle elgoibartarrak eta martxoaren 17an aurkeztuko du Donostian. Igartza literatur saria eskuratu zuen 2014an Villenak eta horrela idatzi du liburua. Aurrez, martxoaren 10ean, liburuaren kapitulu bat deskargatu ahal izango da argiztaletxeko webgunean (www.elkar.eus). Liburua adiskidetasun-istorio bat da, lagun batek beste bati egindako maitasun-keinoa; baina gaixo mentalen estigma sozialaren eta psikiatrikoen salaketa ere. Lagun baten bizitza kontatzen du bere lagun minak: gazte ausart eta bizialea da. Lana, ikasketak, sexua, parrandak... dena ondo doakio, baina zurrumbilo batean sartu eta geldialdirik gabeko gainbeheran eroriko da: drogen kontrola galdu, agerpen psikotikoak, ospitaleratzea, desintoxikazio-zentroa, psikiatrikoa. Bere belaunaldiaren erretratua egin du eleberri honekin. Edertasunez eta intentsitatez idatzitako liburua da eta hartzailearengan ere antzeko zirrara eta irakur-mina piztu nahi litzuke.

Gaztelekuak hiru eguneko egonaldia antolatu du Iruñean

Elgoibarko Gaztelekua martxoaren 21etik eta 28ra itxita egongo bada ere, hainbat ekintza antolatu dituzte martxoaren 29tik apirilaren 3ra bitarteko. Aipagarriena martxoaren 30etik apirilaren 1era Iruñean egingo duten egonaldia da. 55 euro da irteeraren prezioa eta Gaztelekuan bertan eman behar da izena martxoaren 13a baino lehen. Udaberriko eskaintzaren baitan futbolin txapelketa, argazki rallya, gaubela eta zine foruma ere antolatu dituzte gainontzeko egunetarako. Futbolin txapelketarako eta gaubelarako izena eman behar da. Webgunean bertan Gaztelekuan ez ezik whatsapp bidez ere egin ahal izango da telefono zenbaki honetan: 628 170 330.

Erakusketak, antzerkiak, hitzaldia, musika eta filma martxoaren 8rako

Martxoak 8, emakumeen nazioarteko eguna. Hainbat ekitaldi izango dira bai Elgoibarren eta bai Mendaron, besteak beste kultura ekintzak. Gaur, martxoak 4, Laura Daquinta elgoibartarrak ateratako argazkiekin *Emakume izatea Indian* erakusketa inauguratuko dute Kultur Etxean erakusketa gelan. Argazkien bidez Indiako emakume "normal" baten bizimodu irudikatu nahi izan duela dio Laura Daquintak, horiek ezberdintasun handiei egin behar izaten dietelako aurre gizarteko alor gehienetan gutxietsiak baitaude. 19:00etan hitzaldia eskainiko du eta ondoren mokadu interkulturala egongo da. Hilaren 13ra arte egongo da erakusketa ikusgai 18:30etik 20:30era eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara ere.

Zapatuan, martxoaren 5ean, Sustrai akordeoi taldeak kontzertua eskainiko du Kultur Etxeko sotoan 12:30ean. Musika eskolako antzinako ikasleak elkarrezko ilusioarekin, akordeoiaz gozatzeko eta musika partekatuz sortutako taldea da Sustrai. Maite Janeiroren zuzendaritzapean hamar pieza joko dituzte.

Datorren astean

Martxoaren 8an bertan elkarretaratzeez gain, Mendaron ere *Berdintasunari begira* erakusketa izango da martxoaren 8tik 22ra bitartean, udaletxeko arreta gunean, 08:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta Elgoibarren 17:00etan eta 17:30ean Anduriña Zurutuza y Txefo ipuin kontalarrien saioa Gotzon Garate liburutegian.

Hilaren 10erako *Mujeres musulmanas, movimientos feministas. Un acercamiento al feminismo islamico* iragarri dute Biltzeneko Maya Amranen eskutik Kultur Etxeko sotoan izango da 19:00etan.

Emakumeen eguneko kultur ekintzak amaitzeko martxoaren 22n *Datorren urtean hobeto* antzezlan egingo dute 20:30ean Herriko Antzokian eta hilaren 18an Clara Campoamor. *La mujer olvidada* film emanaldia 21:30ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Motxaila Eguna egingo dute datorren asteburuan Mendaron bertso, trikiti, antzerki, su eta beste hainbat ikuskizunekin

Garai bateko sasikopotzu ohitura zaharrari lotutako Motxaila eguna datorren aste bukaeran, neguko azken zapatuan, ospatuko dute Mendaron Zerua motxailen aterpe lelopean. Aurten egun horretako jai giroa berotze aldera, bezperan, martxoaren 11n, bertso saioa izango da 22:30ean Sanagustinen. Andoni Egaña, Alaia Martin, Oihana Bartra eta Agin Rezola airtuko dira bertsoan eta Iñigo Zubiaurre gai jartzen. Sarrerak salgai daude Aitzbeltz tabernan eta Morrokillon 5 eurotan.

Motxaila Eguna martxoaren 12an izango da 11:00etan Haitzbeltz kobazuloan hasita. Bilbotik antzerkilariak etorriko dira eta su-artistak Aragoitik eta ipuinik, bertsoak, irrintzirik eta poemarik ere ez da faltako.

Haitzbeltzen gosenen direnek gaztetxean bazkaltzeko aukera izango dute. Menua tzatzikia, salmorejoa, motxaila-potajea eta motxaila-besoarekin osatuko dute. Aitzbeltz tabernan eta Morrokillon 10 eurotan jarriko dituzte salgai.

Trikitia arratsalde eta gauean

Bazkalostean ere ez da jai girorik faltako. Izan ere, Debatik musika elektronikoa ekarriko dute eta Inozentzio clownak beste urteren batean egun horretan egin izan duen bezala aurten ere bere showa eskainiko du.



Os Diaples D'a Uerba taldeak su ikuskizuna egingo du.

Motxailen jai egun osoa izango denez, arratsaldean, 19:00etan Gaztetxean hasita, trikipoteo maratoia egingo dute Agosti eta Barrena trikitilariekin. Edanean, kantuan eta dantzan Mendaron jai zabaltzea da antolatzaileen asmoa.

Trikitia suarekin ordezkaturiko dute iluntzean. San Joseko plazan *Os Diaples D'a Uerba* Aragoiko taldeak su ikuskizuna eskainiko baitu 21:00etan. Trikitilariak ez diote agurrik esango Mendarori. Izan ere, gauean trikimaratoiak jarraituko du bakoitzak nahi edo ahal duenera arte.

Emakumeen gaiak eta mitologiako pertsonaiak izango dira datorren asteburuko bi antzezlanetan



'Datorren urtean hobeto'-ko aktoreak.

Bi antzezlan izango dira hurrengo asteburuan Elgoibarren, helduentzat bat eta umeentzat bestea. Martxoaren 11n, 20:30ean Herriko Antzokian *Datorren urtean hobeto* lana antzeztuko dute Itziar Urretabizkaiak, Ainhoa Garaik eta Iraitz Lizarragak. Bizitzako pasarteak, bakarrizketa laburrak, pentsamenduak, kronikak, elkarriketa motzak... taularatuko dituzte. Gure errealitatearen islada dira, arinkeriatan ibili gabe, umorez zipriztinduta eta zirria sartzeko prest emango dituztenak. Nahi adina emakume klase irudikatzen inguruan gertatzen zaigunari tira egingo diote: krisialdiak, ihes egin nahiak, lainezak, penak...

Ettxeko txikientzat mitologia

Umeentzako antzerkia, *Azken Eguzkilorea*, Patata Tropikala taldeak eskainiko du Herriko Antzokian 16:30ean. Baserriko Kattalin, herrira jaitsi eta lagun guztiak desagertu dirrela ohartuko da. Basoan betirako arrapatuta geratu daitekeela jakin. Haien bila basora joango da eta mitologian murgilduko da azken eguzkilorea topatzeko.

Datorren urtean hobeto lanerako sarrerek 10 euro balio dute eta ikasle eta gazte txartela dutenentzat 7euro. *Azken eguzkilorea* ikusteko helduentzat 5 euro eta umeentzat 3,5 euro.

Egoitz Morak zilarrezko domina lortu du Bartzelonako nazioarteko judo txapelketan

Espainiako Koparen barruan, beteranoentzako Bartzelonako nazioarteko judo txapelketa jokatu zuten joan den asteburuan. Egoitz Mora elgoibartarrak 30 eta 35 urte artekoen mailan hartu zuen parte, 100 kiloz azpikoaren kategorian, eta zilarrezko domina irabazi zuen. Euskadiko txapeladuna den Morak, judoka kolonbiar bati irabazi zion finalurrekoan, eta finalean Francesco Iannone judoka italiarraren aurka egin zuen borroka. Lehia estua izan zela azaldu du judoka elgoibartarrak, baina epaileek ezarri zioten zigor bat erabakigarria izan zela gaineratu du. Zigorrekin erabat ados ez egon arren, italiarraren garaipena onartu behar izan zuen, borrokaldiaren amaieran epaileetako batek onartu zion arren arrazoia izan zezakeela. Datoren apirilaren 2an Guadalajaran jokatuko den beteranoentzako Espainiako Txapelketan lehiatzea da Moraren hu-



rrengo helburua eta han lehiakide izan ditzakeen aurkarien maila ezagutzeko hartu zuen parte Bartzelonako txapelketan. Usurbilgo Judo Taldeko kide den Mora gustura geratu zen Bartzelonan emandako mailarekin eta Espainiako txapelketa prestatzen zentratuta dago

orain. Udan Kroazian jokatuko den Europako txapelketa ere begiz jota dauka, baina bere poltsikotik ordaindu beharko luke bidaia. Espainiako txapeladun geratuz gero, baliteke Europako zein Munduko txapelketetara joateko diru-laguntzaren bat jasotzea.

Sanloren Eskubaloi Kanpusa

Sanlo eskubaloi taldeak Eskubaloi Kanpusa antolatu du uztaileko. Bosgarren urtez antolatu dute, eta aurten ere Huescako Canfranc herrian izango da, eta bi txanda egongo dira aukeran: lehenengoa uztailearen 11tik 18ra; eta bigarrena 18tik 25era. Eskubaloiaren gainera, abentura, jolasak, gaubelak, patinajea, olinpiadak eta beste hainbat gauza ezberdin probatzeko aukera izango dute. Izena emateko epea martxoaren 7an, astelehenean, irekiko dute (apirilaren 29ra arte. Informazio gehiagorako: sanlolatxo@gmail.com)

Artazoren idiak nagusi, plaza bateko aldeaz

Elgoibarko Artazok eta Orioko Olidenek apustua jokatu zuten zapatu iluntzean Sigmako probalekuan. 1.775 kiloko Murgil harriarekin aritu ziren lehian. Artazoren kintopeko idi pareak 55 plaza osatu zituen lopene eta Tubilla itzai zituela eta Olidenek 54 plaza egin zituen. Olidenek Telleria izan zuen itzain. Honenbestez, jokoan zeuden 2.400 euroak etxean geratu ziren. Lehia estua eskaini zuten animaliek eta probalekura hurbildutako zaleek ere izan zuten jokorako aukera.

Beste apustu bat jokatuko da Sigmako probalekuan, martxoaren 12an. Egoitz Armaolea zumarragarrik eta Enrike Artola oiartzuarrak ere kintopeko idi-apostua jokatuko dute, bakoitzak 1.200 euro jarrita. 22:00etan hasiko da.



Artazo elgoibartarraren idi-parea ahalegin betean Sigmako probalekuan.

Ramon Garciak bigarren egin zuen Tarazonako Master lasterketan



Arg.: Eva Trillo

Ramon Garciak (zuriz erdian) 2. postua lortu zuen lehen etapako esprintean.

Tarazona Hiria (Zaragoza) txirrindulari lasterketan German Gil Burgosko txirrindulariak lortu zuen sailkapen nagusiko lehen postua. Ramon Garcia elgoibartarrak egin zuen bigarren, lehen eguneko bigarren postua eta bigarren eguneko zortzigarren postuei esker.

Toyota Euskoauto taldeko txirrindulari elgoibartarrak indartsu hasi du Master mailako denboraldia. Garaipena eskuratu zuen denboraldiko estreinako proban, Laudikoko Master Klasikoan, eta bigarren postua lortu zuen Zaragozan.

Urpeko Ekintza eta Irudi Jardunaldiak, Urbiziren eskutik

Urbizi urpekarien Elgoibarko elkar-teak III. Urpeko Ekintza eta Irudi Jardunaldiak antolatu ditu, eta martxoaren 11tik 13ra bitartean egingo dute. Olaizaga kiroldegian izango dira ekintza guztiak. Erakusketaren inaugurazioarekin hasiko dira jardunaldiak barixakuan, hilaren 11n. 17:00etan izango da hori. Gero, 18:00etan, Kantauri Garbia Elkartearen aurkezpena egingo dute. Zapatuan (martxoak 12), berriz, urpeko argazkilaritzari buruzko hitzaldia eskainiko du Urbizi elkarteko kide Miguel Castrok (18:00). Azken egunerako urpekaritza bataioak antolatu dituzte hasiberrientzat. Olaizagako igerilekuan egingo dituzte eta doakoak izango dira. urpekaritza bataiatu nahi



dutenek, baina, izena eman behar dute aurrez, honako e-posta helbidera idatzita: urbizi@hotmail.com

Emaitzak

FUTBOLA

Martutene 1 - Haundi 0 (Erregional ohorezkoa)
Ordizia 5 - Elgoibar 3 (A Kadeteak)
Bergara 3 - Elgoibar 0 (B Kadeteak)
Real Union 1 - Elgoibar 2 (Oho. inf.)
Elgoibar 2 - Tolosa 1 (Aleb.)
Aloñ Mendi 5 - Elgoibar 3 (Aleb.)

ARETO FUTBOLA

Sala Quinto 2 - Concepto Egile 3 (Naz. B)

SASKIBALOAIA

Zast Zarautz ZKE 68 - Viento Sur Elg. 67

ESKUBALOAIA

Lauko Elgoibar 30 - Muskiz 24 (Senior emak.)
Bidasoa 27 - Alcorta Forging Group 25 (Senior giz.)
Gabaz Elg. 29 - Ordizia 20 (Sen. giz.)
Teñifuelle Elg. 22 - Zarautz 16 (Jub. nesk.)
Beristain Banaketak 17 - Zarautz 21 (Jub. mut.)
Pulpo 41 - Pneumax Elg. 28 (Kad. nesk.)
Deca Elg. 39 - Basauri 34 (Kad. mut.)
Bidasoa 11 - Dariobus Elg. 24 (Inf. nesk.)
Bera Bera 15 - Cometel 26 (Inf. nesk.)
Zarautz 18 - Federopticos Ikus 14 (Inf. nesk.)
Hotel Txarriduna 30 - Ereintza C 17 (Inf. mut.)
Murgil Elg. 20 - Ereintza A 17 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5
12:00 Elgoibar - Bergara (Oho. kad)
16:30 Haundi - Aloña Mendi (Erregional Oho.)
Domeka, 6
11:00 Elgoibar - Ostadar (Oho. inf.)
12:30 Elgoibar - Aizkorri (Inf. txiki)

PALA (Elgoibar Ikastolan)

Barixakua, 4
21:15 Lagunak Pilota Eskola - Mutriku
(Gipuzkoako Udaberri txapelketa)

ARETO FUTBOLA (IMH kiroldegian)

Domeka, 6
12:30 Conceto Egile - Aurrera Vitoria (Naz. B)

ESKUBALOAIA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 5
10:00 Ikus Elg. - Bidasoa B (Inf. nesk.)
11:15 Dariobus - Ereintza A (Inf. nesk.)
12:30 Bankoa Elg. - Saieko (Kad. mut.)
17:45 Gabaz - Urnieta (Sen. giz.)
19:30 Alcorta Forging Group - Gure Auzune
(Sen. giz.)
Domeka, 6
10:00 Cometel - Aloña A (Inf. nesk.)
11:15 Deca - Zarautz (Kadete mut.)
12:45 Beristain - Pulpo (Jub. mut.)

ESKUBALOAIA (IMH kiroldegian)

Domeka, 6
10:00 Sukia - Aloña Mendi B (Aleb. nesk.)

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako (tabernak, portalak, etxebizitzak) prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzeko prest. Interna, orduka edo ospitalean gauak pasatuko nituzke. 631 534 125

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. Esperientzia handia dut. 659 266 248

Lan bila ari naiz. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen. 690 064 225

Adinekoak zaintzeko prest, orduka edo interna moduan. 632 911 709

Arotz moduan berehala lanean hasteko prest. 631 209 366

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Etxean bertan bizitzen edo orduka. 658 273 486

Asteazken zehar lan egingo nuke: etxe garbiketa, nagusiak paseatu eta haien jarraripena egin... Diplomata: etxeko asistentzia auxiliarra. Esperientzia eta informea. Euskalduna. 675 711 658

Ettxeko lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. 643 398 715

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Eskarmentua dut. Berehala hasteko prest. 633 808 931

Umeak eta adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo gauaz bakarrik. 631 832 388

Sukaldari laguntzaile edo adinekoen zaintzaile lanetan jarduteko prest. 677 259 560

Adinekoak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baseriko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. 686 077 316

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Interna lan egiteko prest. 688 638 980

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Interna lan egiteko prest. 688 858 391

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Interna, kanpoan edo orduka. 631 995 976

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Orduka. 631 925 362

Adinekoak eta umeak zaintzeko, portalak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. 612 214 571

Pintore moduan, eraikuntzan edo adinekoak zaintzen lan egiteko prest. 612 214 602

Adineko edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 688 959 575

Adineko edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 677 709 164

Eskaintzak

Epe motzean, Ilunpe Taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gaitza. Informazio gehiagorako, tabernan galdetu edo deitu. 943 254 252 / 645 599 810

Pertsona bat behar dugu batxilergoko 2. mailako ikasle bati marrazketa teknikoko eskola partikularrak emateko. 620 459 966

Salento pizzerian asteburuetarako pizza banatzailea behar da. 50 zilindradako mota gidatzeko baimena behar da. 680 489 416 edo 943 740 196

4 eta 5 ejedun CNC mekanizazio zentrorako ofiziala behar da. Makinak prestatzen esperientziaduna. Pieza unitarioak. Bidali Curriculumak helbide honetara: 177 posta kutxatila. 20600 Eibar.

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 450 eurora arte ordaintzeko prest. 626 879 255

Elgoibarren etxebizitza alokagai hartuko nuke. 699 609 190

LOKALAK.....
Salgai

Lokala salgai Olaso poligonon. 181 metro koadra ditu. Prezio interesgarria. 677 788 627

GARAJEAK.....
Salgai

Garaje itxia salgai, Jausoro plazan. 19.000 €. Autoa eta moto bat sartzen dira bertan. 685 707 879

Garaje itxia salgai Jausoron (Santa Klarara bidean). 696 874 842

BESTELAKOAK.....

1966an jaiotakoan jaia maiatzaren 28an. Luntxa, bazkaria eta askoz gehiago gure 50 urteak ospatzeko! Izena emateko sartu 66 € Laboral Kutxako kontu honetan: ES39 3035 0007 28 0071132266. Dirua sartzean eman zure izena, bi abizen eta telefono zenbakia. Izena emateko azken eguna apirilak 28. Zatoz, mundiala izango da!

Muleta galdu dut autotik jausita. Pedro Muguruza kaletik abiatu nintzen. Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez. 943 531 648

Koloretako loredu aterki bat topatu dut Trenbide kaleko igogailuko pasabide urdinean. Udaltzaingoa dago.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Etxebizitza bat eman nahi dut errentan eta zalantzak dauzkat. Nola egin behar dut kontratua etxebizitzarekin batera trastelekua eta garajea ere alokairuan eman nahi baditut?

Etxebizitzarekin batera trastelekua eta garajea ere alokairuan emanez gero, kontratu berean arautu behar dira etxebizitza, trastelekua eta garajea.

Bi elementu horiek etxebizitzarekin batera errentan eman ezean, ordea, kontratuak bereizi egin behar dira; bat etxebizitzarentzat eta beste bat etxebizitza ez den beste erabilera baterako trasteleku eta garajearentzat.

Kontratu horiek ezberdinak dira. Izan ere, kontratu bereziak formalizatuz gero, etxebizitza ez den beste erabilera baterako errenta hori hitzarmenerako askatasun printzipioaren bidez egingo da. Beraz, bi alderdiek egoki jotzen dituzten akordioak egin ahal izango dituzte.

AHOLKUA: Kontuan hartu behar da trastelekuei eta garajeei dagozkien kontratuek, etxekotik aparte egindakoek, 1994a baino lehen egin baldin baziren kode zibilaren araudia ezartzen zitzaizela edo kontratua negozio bati lotutakoa baldin bazen, negozio-lokal baten kontratuarekin parekatu behar zirela.

ROSA M^a PINTADO: *Ettxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Maia-len**. 4 urte aste-azkenean! Oso ondo pasatu genuen. Zure bizkotxo oso goxoa. Patxo asko aita, ama eta Jon.



Zorionak, **Paul**, asteartean 5 urte bete zenituelako. Muxu bat denon partez.



Azkenean iritsi da sei urte handi betetzeko eguna! Zorionak eta txokolatzeko mila muxu gure etxeko **pirata** txikiari.



Zorionak, **Junes**, gaur 6 urte bete dituzulako. Muxu potolo bat gure etxeko futbolariari!



Zorionak, **Ariane**, astelehenean 3 urtetxo beteko dituzulako. Familia guztiaren partez.



Zorionak, **Iuren!** Hurrengo ostegunian 6 urte! Ondo-ondo pasau eguna. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Jone**, lgandean 3 urte beteko dituzulako. Gurasoen eta senideen partez muxu bat eta ondo pasau!

Erretratu bakarrekogurra:

4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

LAN DEIALDIA

Curriculumak aurkezteko epea:
martxoak 7, astelehena.

Ubitarte 4, behea. 20870 ELGOIBAR
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus
(Naiara) 943 741 626



ESKATZEN DA:

- ◆ Gizarte Hezkuntzako, Gizarte Laneko, edo Gizarte Zientzietako edo antzeko erdi edo goi mailako titulazioa izatea.
- ◆ 3. hizkuntza eskakizuna, EGA edo titulu baliokideren bat.

BALORATUKO DA:

- ◆ Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- ◆ Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako antzerako goi mailako Unibertsitate titulazioa izatea.
- ◆ Espezializazio ikastaroak izatea.
- ◆ Nerabearoa eta nerabeen errealitatea ezagutzea.
- ◆ Elgoibarkoa izatea.
- ◆ Jarrera dinamiko eta sortzailea izatea.
- ◆ Taldean lan egiteko gaitasuna.
- ◆ Planifikatzeko, ebaluatzeko eta antolatze gaitasuna izatea.
- ◆ Euskalgintzan jardun izana.
- ◆ 4. hizkuntza eskakizuna izatea.
- ◆ Informatika eta teknologia berrien gaineko ezagutza izatea.

4 BARIXAKUA

18:30-20:30 Odol-ematea. Osasun zentroan.

19:00 Hitzaldia: *Emakume izatea Indian*. Laura Daquinta. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

20:00 Argazki erakusketa: *Emakume izatea Indian*. Laura Daquinta. Inaugurazioa eta luntx interkulturala. Antolatzailea: Udalaren Berdintasun Saila eta Emakumeen Kontseilua. 4tik 13ra 18:30-20:30. Jaiegunetan 12:00-14:00 ere. Igande arratsaldetan itxita. Kultur Etxeko erakusketa gelan

23:00 Kontzertua: Highlights. Antolatzailea: Sinuose. Sarrera: 3 euro. Kultur Etxeko sotoan.

5 ZAPATUA

11:00 Ingeniaritza dualeko unibertsitate-eskolaren informazio saioa. IMHn.

12:30 Soinu kontzertua: Sustrai akordeoi taldea. Kultur Etxeko sotoan.

14:30 Emakumeen bazkaria eta dantzak. Antolatzailea: Haizea emakumeen elkarte. Sigma jatetxean.

6 DOMEKA

12:00 Meza nagusia, Mendaroko Aingeru Guardako jaiak.

Ondoren, trikitalariak, bertsolariak eta herri kirolak.

14:30 Bertso-bazkaria. Bertsolariak: Iker Zubeldia eta Aitor Sarriegi. Mendaroko Aizpe elkarte.

8 MARTITZENA

08:00 Erakusketa: *Berdintasunari begira*. Martxoaren 22ra arte. 08:00-15:00 eta 17:00-20:00. Mendaroko udaletxeko arreta guneko solairuan.

17:00 Film emanaldia: *Como entrenar a tu dragon*. Mendaroko San Agustin aretoa.

17:00 eta 17:30 Ipuin Kontalaria: *Berdin eta desberdin, 1.000 ipuin*. Anduriña Zurutuza eta Txefo. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

19:00 Giza katea eta Berdintasun Egunekeo manifestuaren irakurketa. Mendaroko plazan.

19:00 Martxa morea. Kalegoen plazatik abiatuta.

9 EGUAZTENA

11:00 Hitzaldia: Siriako gatazka eta errefuxiatuen arazoa. Hizlaria: Mikel Aramendi. *Errefuxiatuak: Helmugarik gabeko ihesa* zikloa. Antolatzailea: Elgoibarko Gazte Asanblada. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

10 EGUENA

19:00 Hitzaldia: *Lesbos irlan boluntario*. Hizlaria: Iñaki Iraola. *Errefuxiatuak: Helmugarik gabeko ihesa* zikloa. Antolatzailea: Elgoibarko Gazte Asanblada. Sutegixa Elgoibarko gaztetxean.

19:00 Hitzaldia: *Mujeres musulmanas, movimientos feministas. Un acercamiento al feminismo islamico*. Hizlaria: Maya Amrane (Biltzen). Kultur Etxeko sotoan.

11 BARIXAKUA

14:30 Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Saio didaktikoa. Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto. Elgoibar Ikastolan.

17:00 Urpeko ekintza eta irudi jardunaldiak. Erakusketaren irekiera. Olaizagan.

18:00 Hitzaldia: Kantauri Garbia elkarrearen aurkezpena. Olaizaga Kiroldegian.

20:30 Antzerkia: *Datorren urtean hobeto*. Txalo produkzioak. Herriko Antzokian.

22:30 Motxailak bertsotan saioa: Andoni Egaña, Oihana Bartra, Alaia Martin eta Agin Rezola. Gai-jartzaile: Iñigo Zubiaurre. Mendaroko San Agustinen. Txartelak: Aitzbeltzen eta Morroskillon (5.00€).

III. URTEURRENA

Iñaki Argarate Iriondo

2013ko martxoaren 7an hil zen, 50 urte zituela.

***Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,
baina betirako egongo zara gure oroimenean***

Zure lagunak



Zinea (Herriko Antzokian)

'Joy'

4 Barixakua, 21:30
5 Zapatua, 19:00/22:15
(Jatorrizkoa azpitiitulekin)
6 Domeka, 19:00



'Pesadillas'

6 Domeka, 16:30



Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626	Ludoteka.....	943 748 883	Gurutze gorria.....	943 743 864
Udalzaingoa.....	943 741 394	Gaztelekua.....	943 743 228	Eusko tren.....	902 543 210
Udalaren arreta bulegoa.....	943 741 050	Enplegua/Merkataritza.....	943 741 050	Pesa.....	902 101 210
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700	Emugi.....	943 747 371	Jokalari anonimoak.....	657 710 156
Bake epaitegia.....	943 741 630	Kiroldegia.....	943 744 415	Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008	Mintxeta.....	943 747 356	Correos - Posta.....	943 741 547
Hirigintza.....	943 744 384	Musika eskola.....	943 742 145	Mendaroko Udala.....	943 033 282
Mankomunitatea.....	943 700 799	Udal euskaltegia.....	943 742 731	Liburutegia.....	943 033 291
Debemen.....	943 744 067	AEK euskaltegia.....	607 601 423	Bake Epaitegia.....	943 033 289
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414	KZgunea.....	943 023 640	Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Berdintasun saila.....	943 741 050	Jubilatuena biltokia.....	943 740 526	Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Euskara saila.....	943 744 366	San Lazaro egoitza.....	943 740 296	Haurtzaindegia.....	943 755 219
Kultura saila.....	943 742 158	Eguneko zentroa.....	943 744 565	Musika Eskola.....	943 244 275
Udal liburutegia.....	943 743 525	Kontsumo bulegoa.....	943 743 088	Taxi.....	607 57 57 28
Gazteria saila.....	943 531 319	Taxi geltokia.....	943 740 898	Ospitalea.....	943 032 800
Gazte informazio gunea.....	943 257 986	Larrialdiak.....	112		

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

4 Barixakua ORUESAGASTI

5 Zapatua BARRENETXEA

6 Domeka BARRENETXEA

7 Astelehena IBAÑEZ

8 Martitzena GARITAONANDIA

9 Eguaztena ETXEBERRIA

10 Eguena FERNANDEZ

11 Barixakua YUDEGO

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara

ETXEBERRIA (Elgoibar) - Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)

Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,

Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)

Tel.: 943 751 384

I. URTEURRENA

Maria Etxaniz Iriondo

2015eko otsailaren 28an hil zen.



**Gure ondotik joan zinen,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzetan.**

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 5, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.



Manu Sanchez



Unai Villena



Nire ahotsa arrotza egiten hasi zitzaidan,
nire itzalean neure gorputza antzemateari utzi nion,
ispiluak beti bueltatzen zidan ezezagun baten aurpegi zurruna.

Dagoeneko ez nintzen oroitzen nuen hura;
beste bat nintzen, neure azalaren gezurrean harrapatua.

*“Ispiluak beti bueltatzen zidan
ezezagun baten aurpegi zurruna”*



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, Implantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal  Eta twitterren: @Clinicalirazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

AROSZTEGIAK

iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

MAR
AROSZTEGIA

Olaso Industriegunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



BIENA S.L.
AROSZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax: 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Arnatagia Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

Ulazia
AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri Industriegunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

iparelek s.l.
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

ELECTRICIDAD AZPELETA
San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
elbar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17. AC beheak
Tel.: 943 202 208
Faxa: 943 205 045
20600 EIBAR

Heriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARA

egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA

E. ARANDIA
ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 beheak - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko koordinazioa.
Pladurarekin ere lan egiten dugu.

IGELTSERITZA
CAMILO ALVAREZ

Jardiñeta, 25 beheak
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA

SANTANA
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

PAGOERROTA ITURGINTZA

Heriko Enparantza, 10 beheak
MENDARA
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37

pagoerrotaiturgintza.com
www.pagoerrotaiturgintza.com

ongi Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

FONTANERIA Ibámar
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskafnet.net

TELLABIDE

ITURGINTZA



Azpigoeta 7 beheak - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatellabide@hotmail.com

ZUBIZARRETA
intalazioak

Ubitarte plaza, 5 beheak
Elgoibar

943 740 789
650 586 144



PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
talera@pagoagasa.com

ELGOIBAR

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida